

## Mendia → Monterapia liburua



Bachimañako lakuetan, Aragoiko Pirinioetan. JUANJO GARBIZU

plina berrien inguruan jarduten du, mendi lasterketen kasuan batik bat. Ez ditu mendian lasterka ibiltzen direnak ulertzen: «Geroz eta gehiago dira mendira lasterka egitera irteten diren mendizaleak, eta guztiz onargarria da, baina, nire iritziz, lasterketak eta mendia kontrajarriak daude», azaldu du egileak. Lasterka joanez gero, mendiak eskaintzen dituen sentipen asko galtzen dituzula uste du Garbizuk; batez ere, pentsatzen du beretzat mendiak eskaintzen duen eragin osasungarriena galtzen dutela, konexioa galtzearena. Fisikoki osasuntsua izateaz gain, mendira joateak psikologikoki asko lagundu dezakeela iruditzen zaio donostiarrari, eta liburuan esparru hori lantzen saiatu da gehienbat.

Bestetik, teknologia berriek izan duten eragina aztertzen du eta zenbateraino diren onak azaltzen saiatzen da. Orientaziorako GPSak arduratzen du, gehienbat, donostiarra. «Teknologiarekiko hartzen ari garen edo jada daukagun mendekotasuna oso arriskuetsua da. Gaur egun, mendira ibiltzera joaten hasten denak GPSa erabiltzen du orientatzeko, eta geroz eta gutxiago dira ohiko teknikak erabiltzen dituztenak», nabarmendu du. Horrek, naturak orientatzeko daukako baliabideak, iparrorratzaren erabilera, mapen irakurketa, izarren kokapena eta beste hainbat tekniken ezja-

kintasuna eraman du mendizalea, donostiarraren ustetan. «Nik beti esan ohi dut erabiltzen ez dena usteldu egiten dela, eta pixkanaka teknika horiek bide hori daramate», esan du Garbizuk.

Goi mailako mendietan aritzen diren alpinisten eta horien espedizio inguruan ere jarduten du *Monterapia* liburuan. Espedizio horien atzean dauden babesleek mendizaleengan presio handia eragiten dutela uste du Garbizuk, eta orduan mendiaren eta alpinismoa egitearen zentzua galtzen dela uste du. «Orduan, gainera, kideen arteko lehiak sortzen dira eta elkarren arteko hankerkeriak», dio Garbizuk.

Aconcaguara (6.960 m) egindako espedizioan egiaztatu ahal izan zuen hori egileak: «Aconcaguaren egon nintzenez konturatu nintzen ez duela ezer ikustekorik izan norberak nahi duen mendira joan eta lasai ibilbide bat egiteak eta horrelako espedizio batean murgiltzeak. Euskal Herriko mendietan umoretsu egoten da jendea, jator. Horrelako espedizioetan, ordea, umore txarrak ohiko izaten dira, eta elkarren arteko liskarrak ere bai. Tentsioak eta urduritasunak eragiten dute hori». Bizitzan mendira bi aldiz joan eta dirutza baten truke Himalaiara joaten diren horiek ere kritikatzeko ditu. «Hala ere, garrantzitsua da hori ez orokortzea. Orain gutxi ikusi dudana *Pura Vida* filmak, esaterako, bestelako ikuspuntu bat erakusten du, oso gizatiarra dena».

Julio Villarrek ere egiten die erreferentzia horrelako jardueri hitzurrean: «Egun, garaipena ezinbesteko irakasgaia bihurtu da gure gizartean; mendia aurre-sortutako ideien azoka bihurtu da».

Garbizuren lehen liburua izan da *Monterapia* eta izan duen arrakastaz jabeturik, ez du alde batera uzten etorkizuneko beste argitalpen bat egiteko asmoa. «Denbora eta esfortzu handia eskatzen du, baina, irakurleen kritika onek indarra eman didate; akaso, egongo da ideia berri bat garatzeko denborarik».

## ‘Oju Peligru’ bidean seguru finkoak jarri ditu Jensenek

Richard Jensenek irekieran beharrezko etika ez erabili izana egotzi dio David Palmada ‘Pelut’-i

O. Iribarren

2009an David Palmada *Pelut* eta Esther Ollek ordura arte eskalada artifizialean proposaturiko bide gogorrena zabaldu zuten AEBetako Fisher dorreetan. *Oju Peligru* jarri zioten izena bideari, eta *Pelutek* A6+ zailtasun maila proposatu zuen horrentzat. Eskalatzailerak askoren haserrea eragin duen gertakari bat gertatu da Fisher dorreetan. Richard Jensen eskalatzailer estatubatuarrek *Oju Peligru* bidea errepikatu du, eta *Pelutek* erabilitako estiloa kritikatzeko gain, bide osoan zehar hainbat seguru finko ezarri ditu, baita bileretan ere. Horrela, A3 zailtasun mailara jaitsi du *Pelute* proposamena. Zailtasun maila jaisteaz gain, izena ere aldatu dio estatubatuarrek: *Look out! Weak Sauce*, euskaraz *Kontuz! Saltsa leuna* litzatekeena.

Eskalatzailerak askoren haserrea ez da itxaron behar izan, eta arrazoiak ez dira gutxi. Horrela, Jensenek lehengo luzetik erabaki zuen seguru finkoak erabiltzea, eta gailurrera iritsi arte hainbatetan zulatzen zuten pareta, bileretan barne. Horrela, ezinezkoa izango da *Pelutek* egindako zailtasun mailaren proposamenean asmatu zuten ala ez jakitea.

Ez da gauza berria Jensenek

Richard Jensenek *Oju Peligru* bidean jarritako seguru finkoak. RICHARD JENSEN

eskalada polemikoak egitea. 80ko hamarkadan Yosemiteko eskalatzailerak jarraitu zioten. *Wings of steel* bidearen zabalera gatik. Garai haietako Yosemiteko eskalatzailerak etikarekin guztiz kontrajarria zegoen estiloak hamaitz arazo ekarri zizkion Jenseni. Urte batzuen ostean berriro ere komunikabideetan agertu zen, Jim Beyerrek zabalduko *Intifada* bideari aldaketa batzuk egin eta A4+ zailtasuna proposatu zuenean.

Bere azken moldaketa *Oju Peligru* bideari egin dio; bere aburuz, jarraituriko bideak ez baitu inongo zentzurik, eta *Peluti* hango eskalada artifizialaren etika ez ezagutzea kritikatu dio. Hori gutxi balitz bezala, bidearen berezko zailtasuna nahita igo izana leporatzen dio *Peluti*, helburu komertzialak direla tarteko.

*Pelutek* adierazi du, berriz, naz-

katuta dagoela liskar horrekin eta ez duela inolako saltsatan sartzeko gogorik. Hala ere, beretzat eskalatzeko duela esan du, eta ez beste inorentzat. «Bide bat eskalatzeko hasten naizenean, gustatzen ez bazait, jaitsi egiten naiz; bestela, zabalatzaileraren moldeak errespetatzea besterik ez zait gelditzen», dio *Pelutek*. «Inoiz ez zitzaidan otuko beste batek zabalduko bidea txikitzea. Seguru finkorik ez duen bide batera zulgailuarekin joateak asko esaten du eskalatzailerak motari buruz. Protagonismoa lortu nahi duen pertsona bat dela iruditzen zait».

Elkartu eta gertatutakoak hitz egiteko gonbita egin zion estatubatuarren *Pelutek*, baina, ez zuen onartu. «Badaki ez duela arrazoirik, horregatik ez du aurpegia ematen. niretzat oso garrantzitsua litzake aurrez aurre hitz egitea», dio *Pelutek*.

## ‘Samba do Leao’ bidea zabaldu dute Fitz Royko ipar horman

Sergio Tartari, Flavio Daflon eta Luciano Fiorenza izan dira irekieraren protagonistak

O. I

Sergio Tartari eta Flavio Daflon brasildarrek eta Luciano Fiorenza argentinarrek bide berri bat zabaldu dute Patagoniako Fitz Roy orratzaren ipar horman. *Samba do Leao* jarri diote izena, eta estilo alpinoan erabili dute irekierara-

ko. 1.300 metroko luzera du, eta 6c zailtasuneko pausoei egin behar izan diote aurre, era askean.

*Tehuelche* bidearen ezker aldeetik hasten da lerro berria, eta *Gran Hotel* esaten dioten *vivac* era iristen da ondoren. Hortik aurrera, 11 luze behar izan zituzten ipar-ekialdeko ertzeraz iritsi arte. Ertzean, *The Hoser Chimney* bidearekin batean du ibilbidea, berriro ere luze berri batzuk ireki arte. Azken zatia oso bertikala da, orratzaren gailurrera iritsi arte. Guztira, hiru egun behar izan dituzte eskalatzailerak bidearen 30 luzeak elkartzeko.

Tartari Brasilgo eskalatzailer indartsuenetarikoa bat da, eta esperientzia handia du alpinismo jardueretan. Horren adibide, Patagoniako orratz berean *Al Abordaje* bidearen zabalkuntzan parte hartu izana. Azken hori 900 metro garai da, eta A2+ zailtasun maila du.

Daflonek ere egin ditu igoera interesgarriak, horien artean, *Place of Happiness* Minas Gerisen kokaturiko 7c/+ zailtasuneko bidearen lehen errepikapena. Azken horrek 850 metro garai da, eta Stefan Glowacz izan zen zabal-tzailea.

### ↓ Liburu fitxa



- **Izena:** Monterapia
- **Egilea:** Juanjo Garbizu.
- **Argitaletxea:** Dieresis.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.
- **Prezioa:** 17,00 euro.